

NOTA DE PRENSA

Activistas indias presentaran en Pamplona sus iniciativas contra la pobreza y en defensa de los derechos de las mujeres

El próximo 18 de abril, miércoles, a las 19 horas dos dirigentes de la organización feminista india Initiatives: Women in Development (IWID) ofrecerán en el auditorio de Civicán (Av. de Pío XII, 2) de Pamplona la conferencia titulada "*La mujer en India. Iniciativas para superar la pobreza y la violencia*". El acto está organizado por la ONG ALBOAN con la colaboración de Fundación Caja Navarra y Frenos Iruña.

Esther Beulah Devakumari, presidenta de IWID, y la Dra. Sitamma, integrante del Consejo de IWID, presentarán las medidas de lucha contra la pobreza que han puesto en marcha como, por ejemplo, el impulso de cooperativas de agricultura ecológica. Asimismo, abordarán la iniciativa "Parlamentos de mujeres", es decir, asambleas de mujeres en las que debaten y formulan propuestas de defensa de sus derechos, que posteriormente se trasladan a las instituciones públicas.

IWID, con la que ALBOAN colabora desde hace años, trabaja en la defensa de los derechos de las mujeres, promoviendo su organización e impulsando proyectos que ayuden a generar ingresos y mejorar su seguridad alimentaria.

Entre dichos proyectos se encuentra la iniciativa "*Familias rurales indias mejoran su acceso a una alimentación saludable y aumentan sus ingresos económicos*" que se desarrolla en Tamil Nadu con el patrocinio de Frenos Iruña y la colaboración de la Fundación Caja Navarra. A través de la misma, mujeres de la comunidad reciben formación en agricultura ecológica y comercialización, para cultivar pequeñas parcelas de tierra y cosechar productos que les permitan acceder a una alimentación más saludable para sus familias y vender los excedentes en el mercado.

Para más información y entrevistas: Edur Mintegi. 660445247 e.mintegi@alboan.org

PRENTSA OHARRA

Indiako ekintzaileek pobreziaren aurka eta emakumeen eskubideen aldeko ekimenak aurkeztuko dituzte Iruñean

Datorren apirilaren 18an, asteazkenean, Indiako Initiatives: Women in Development (IWID) erakunde feministako bi buruzagiek Iruñeko Civician aretoan (Av. de Pío XII, 2) “Emakumea Indian. Pobrezia eta bortizkeria gainditzeko ekimenak” izeneko hitzaldia eskainiko dute. ALBOAN GKE-k, Fundación Caja Navarra eta Frenos Iruña-k lagunduta, antolatzen du ekitaldia.

Esther Beulah Devakumari, IWID-eko presidentea eta, Sitamma doktorea, IWIDeko Batzordeko kideak pobreziaren aurka jarritako neurriak aurkeztuko dituzte, besteak beste, nekazaritza ekologikoaren kooperatibak. Halaber, “emakumeen Parlamentuak” delako ekimena azalduko dute, hau da, beren eskubideak babesteko proposamenak eztabaidatu eta gorpuzten dituzten emakumeen biltzarrak.

ALBOANek aspalditik lan egiten du IWID erakundearekin. Izan ere, erakunde horren helburua emakumeen eskubideak defendatzea da, antolakuntza sustatuz eta, diru-sarrerak sortzen eta elikadura-segurtasuna hobetzen laguntzen duten egitasmoak bultzatuz.

Egitasmo horien artean Tamil Nadun garatzen den “Famili nekazariak elikadura osasungarria erdiesten dute eta diru-sarrerak hobetzen dituzte” izeneko dago, Frenos Iruña-k diruz lagunduta eta Fundación Caja Navarra-k babestuta. Egitasmo horren bitartez, bertako emakumeek nekazaritza ekologikoa eta merkaturatzearen gaineko trebakuntza jasotzen dute, beren familientzako elikadura lor dezaten eta soberakinak merkatuan sal ditzaten.

**Argibide gehiago eta elkarrizketak egiteko: Edur Mintegi. 660445247
e.mintegi@alboan.org**